



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urriaren 20a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakaria urriaren 12ko festaren kariatara Madrilan egindako ekitaldian egon ez izanari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (2. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakaria urriaren 12ko festa nazionalaren kariatara egindako ekitaldian egon ez izanari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (3. or.).
- Galdera, esne-sektorearen krisia arintzeko hartutako neurriei buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (3. or.).
- Galdera, jakiteko ea Gobernuak pentsatuta duen bere kideek konpromiso etiko bat har dezaten, “ate birakariak” deiturikoak mugatzeko. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (4. or.).
- Galdera, erreforma fiskalari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (4. or.).
- Galdera, jakiteko diru-bilketaren arloan zer kostu izanen duen 2015ean araudi fiskala aldatzeko eta jarduera ekonomikoa pizteko neurriak hartzeko abenduaren 24ko 29/2014 Foru Legeak. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Kontuen Ganberako lehendakariaren Ebazpena, urriaren 5ekoa, Nafarroako Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoa sortzen eta arautzen duena (6. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakaria urriaren 12ko festaren kariatara Madrilen egindako ekitaldian egon ez izanari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakaria urriaren 12ko festaren kariatara Madrilen egindako ekitaldian egon ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakaria, Uxue Barkos, ez da joan urriaren 12ko festaren kariatara Madrilen Errege Jauregian egindako ekitaldietara. Hasiera batean adierazi zuen ez zela joan Bruselan Erregioen Batzordearen bilera bat zeukalako. Geroago adierazi zuen "jarrera politiko" bati erantzunez ez zela joan.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria zergatik ez zen joan urriaren 12ko festaren kariatara Madrilen egindako ekitaldietara?

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakaria urriaren 12ko festa nazionalaren kariatara egindako ekitaldian egon ez izanari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakaria urriaren 12ko festa nazionalaren kariatara egindako ekitaldian egon ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán

Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan urriaren 12an festa nazionalaren ekitaldiak egin ziren. Nafarroaren ordezkariak instituzional gorenari –hots, bere lehendakaria– ez zen joan ekitaldi horietara.

Hona galdera:

Nafarroako Gobernuko lehendakaria ez zen joan Nafarroa ordezkatzera festa nazionalaren ekitaldietara, erabaki baitzuen Erregioen Batzordea joatea. Beste autonomia erkidego batzuetako lehendakariak, aldiz, Festa Nazionala ospatzera joan ziren beren herritarrek ordezkatzuz, nahiz eta haiek ere Erregioen Batzordeko kideak diren. Uste duzu Nafarroak eta nafarrek hori merezi dutela?

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, esne-sektorearen krisia arintzeko hartutako neurriei buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, esne-sektorearen krisia arintzeko hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu ditu esne-sektorearen krisia arintzeko, sektorearekin izandako bileraren ostean?

Iruñean, 2015eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, jakiteko ea Gobernuak pentsatuta duen bere kideek konpromiso etiko bat har dezaten, “ate birakariak” deiturikoak mugatzeko.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea Gobernuak pentsatuta duen bere kideek konpromiso etiko bat har dezaten, “ate birakariak” deiturikoak mugatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak 2015eko urriaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik bere kideek konpromiso etiko bat har dezaten mugatze aldera “ate birakariak” deiturikoak, hau da, bere kideak jarduera pribatuetan sartu ahal izatea beren funtzio publikoak betetzeari uzten dioten unean, baldin eta jarduera horiek talka egin badezakete interes publikoarekin?

Iruñean, 2015eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, erreforma fiskalari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, erreforma fiskalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Unzu Gáratek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak urriaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarrak eta gure erkidegoan kokatutako enpresak Euskal Autonomia Erkidegokoekin eta Estatukoekin alderatzen baditugu, gai al zara hemen eta orain esateko zure erreforma fiskalak gutxienez ere zerga-baldintza beretan utziko dituela?

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, jakiteko diru-bilketaren arloan zer kostu izanen duen 2015ean araudi fiskala aldatzeko eta jarduera ekonomikoa pizteko neurriak hartzeko abenduaren 24ko 29/2014 Foru Legeak.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko diru-bilketaren arloan zer kostu izanen duen 2015ean araudi fiskala aldatzeko eta jarduera ekonomikoa pizteko neurriak hartzeko abenduaren 24ko 29/2014 Foru Legeak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregalamentuan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den urriaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Araudi fiskala aldatzeko eta jarduera ekonomikoa pizteko neurriak hartzeko abenduaren 24ko 29/2014 Foru Legeak zer kostu izanen du diru-bilketaren arloan 2015ean? Zein izanen da kostua, xehakaturik, PFEZean, ondarearen gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan?

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Kontuen Ganberako lehendakariaren Ebazpena, urriaren 5koa, Nafarroako Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoa sortzen eta arautzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako ebazpena, urriaren 5koa, Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoa sortzen eta arautzen duena, ERABAKI DA:

1. Aipatu ebazpena jasotzat ematea.

2. Ebazpena Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Kontuen Ganberako lehendakariaren Ebazpena, urriaren 5koa, Nafarroako Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoa sortzen eta arautzen duena

Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak ekarri zuen herritarrei behin betikoz onartzea herri-administratioekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izateko eskubidea. Lege horrek administrazio elektronikoari eta prozedura administratiboan kudeaketa elektronikoari buruzko araubide juridikoa ezarri zuen, bai eta administrazio elektronikoaren bultzada zer oinarriren gainean taxutu behar zen ere.

Legeak Egoitza Elektronikoen kontzeptua sortu zuen; izan ere, argiro zehaztu beharra zegoen herritarrekiko nahiz beste administrazio batzuekiko harremanak ezartzeko administrazio-egoitza elektronikoa. 10. artikulua honela definitzen du egoitza elektronikoa: "Egoitza elektronikoa da herritarrek telekomunikazio-sareen bidez bali dezaketen helbide bat, herri-administratio batek bere jabetzakoa den eta bere esku-

menak erabiliz kudeatu eta administratzen duen telekomunikazio-sare baten bitartez eskainia." Artikulu horren hirugarren idatz-zatiak dioenez, administrazio publiko bakoitzak zehaztuko du egoitza elektronikoa sortzeko baldintzak eta tresnak. 24., 25. eta 26. artikuluek erregistro elektronikoa arautzen dituzte, Administrazioari edozein idatzi edo eskabide aurkezteko.

Alegia, 11/2007 Legeari esker, herritarrek Administrazio publikoaren zerbitzuetan sarbide elektronikoa baliatzeko eskubidea izanen dute; halatan, herritarrei zerbitzu horiek ematea ez da aukerakoa Administrazioarentzat, baizik eta horiek emateko ahalmena bete behar bihurtzen da haien zat.

Nafarroaren kasuan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzeko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legearen xedea da herritarren zerbitzuko administrazio elektronikoen eraginkorra ezar dadin sustatzea, teknologiaren aurrerapenen arabera onargarritzat hartzen diren teknikak eta bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa pixkanaka sartuz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoetako administrazio prozeduren izapideetan eta kanpoko nahiz barruko harremanetan.

Foru legeak dioenez, Foru Komunitateko administrazioak eta haren erakunde publikoek pixkanaka ezarriko dituzte baliabide elektronikoa prozeduren tramitazioan; aldez aurretik, kasuan kasuko administrazio prozedura elektronikoa onetsi beharko dira eta baliabide elektronikoen horiek aplikatzeko egokiak diren neurriak emanen.

Hartara, foru legeak aurreikusten du erregistro elektronikoa, sinadura elektronikoa, iragarki-ohol elektronikoa eta bestelako tresna batzuk ezartzea herritarren eta administrazio publikoen arteko komunikazioa errazteko.

Administrazio-araudi hori dena Nafarroako Kontuen Ganberari guztiz aplikatzekoa da; izan ere, erakunde honi dagokio Nafarroako Foru Komunitatearen sektore publikoaren ekonomia-eta finantza-kontrola. Erakunde hau erregistro eta artxibo elektronikoaren ezarpena ari da garatzen azken urteotan, eta laster ezarriko du erregistro telematikoa beste administrazio batzuekiko eta herritarrekiko bere komunikazioetan.

Kontuen Ganberarekiko komunikazio elektronikoko prozeduren ezarpenak beharrezkoa egiten du, besteak beste, argi eta garbi zehaztea harreman horietarako baliatuko den administrazio-egoitza elektronikoa eta haren oinarritzko araubide juridikoa zehaztea, funtzionamendu erabat arduratsua ekarriko duena haren bidez baliatzen ahalko diren informazioaren eta zerbitzuen osotasunari, egiazkotasunari eta eguneratzeari dagokiez.

Horrenbestez, hori guztia kontuan hartuta, Kontuen Ganberako sistema informatikoetako goi mailako teknikariarekin koordinatuta, erakundeak auditoreei entzun ondoren eta ganberako Langileen Batzordeari horren berri eman ondoren, lehendakaritza honek, bere ahalmenak eta esku-menak baliatuta,

EBATZI DU:

Lehena. Xedea eta aplikazio eremua.

Ebazpen honen xedea da Nafarroako Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoa sortzea eta arautzea. Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoa bakarria izanen da erakundearen organo guztientzat.

Bigarrena. Egoitza elektronikorako sarbidea.

Hona egoitzaren erreferentziako helbide elektronikoa:

<https://sedeelectronica.camaradecomptosdenavarra.org>. Zuzenean sartzan ahalko da bertan, bai eta erakundearen web orritik ere (www.camaradecomptosdenavarra.org).

Hirugarrena. Egoitza elektronikoaren titulartasuna eta organo arduraduna.

Egoitza elektronikoaren titulartasuna Nafarroako Kontuen Ganberari dagokio.

Idazkaritza Nagusiari dagozkio egoitzaren eduki komunaren kudeaketa eta erakundearen organo eta unitateekiko koordinazioa.

Kontuen Ganberaren Idazkaritza Nagusiari dagokio egoitzaren kudeaketa teknologikoa, zeina erakundearen sistema informatikoen goi mailako teknikariaren bidez egiten baita.

Laugarrena. Egoitza elektronikoaren edukia eta ezaugarriak.

1. Nafarroako Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoak honako eduki hau izanen du guxtienez ere:

a) Egoitzaren, haren organo titularraren eta haren kudeaketaren organo arduradunaren identifikazioa.

b) Egoitza elektronikoaren bidez eskaintzen diren edukiei buruzko informazioa.

c) Egoitza elektronikorako sarbiderako eta erabilerarako baldintzak.

d) Erabiltzaileak egoitza elektronikoa ongi erabiltzeko beharrezkoa den informazioa, egoitzaren mapa barne, nabigazio-egituraren zehaztapenarekin.

e) Sinadura elektronikoko sistema onargarrien eta ziurtagiriak egiaztatzeko sistemen zerrenda.

f) Bitarteko elektronikoen bidez erabiltzeko modukoak diren prozedurak.

g) Kontuen Ganberaren erregistro elektronikoa eta hari buruzko araudia.

h) Egun eta ordu ofiziala, eta baliogabe deklaraturako egunak.

i) Kontuen Ganberak sartzea erabakitzen duen beste edozein.

2. Egoitza elektronikoan sartutako informazioak eta zerbitzuek ekainaren 22ko 11/2007 Legean eta apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legean ezarritako irisgarritasun eta erabilgarritasun printzipioak beteko dituzte, unean-unean indarrean den araudian arlo horri dagokionez ezartzen den moduan.

3. Egoitza elektronikoan argitaratutako edukiek segurtasun eta elkarreragingarritasun irizpideei erantzunen diete, zeinak ekainaren 22ko 11/2007 Legetik, 11/2007 Legea hein batean garatzen duen azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretutik, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretutik eta Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretutik heldu baitira.

Bosgarrena. Erregistro elektronikoa

Erregistro elektronikoak agiri bat emanen du, dena delako idazki, eskabide edo komunikazio horren kopia kautoa izanen dena, eta erregistratzearen eguna eta ordua eta erregistroko sarrerazentzua izanen ditu. Baldin eta erregistro elektronikoak ez badu kreditazio ziurtagiririk ematen, kasuko eskabidea, idazkia edo komunikazioa ez

da aurkeztutzat emanen, eta Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako moduan aurkeztu beharko da orduan.

Erregistro elektronikoa egunean 24 ordu egon da zerbitzuan, baina hori ez da eragozpena izanen ezinbestean egin beharreko mantentze teknikoko edo operatiboko lan planifikatueterako eten dadin zerbitzua, hori eginen dela garaiz informatuta. Erregistroa kokatzen den egoitza elektronikoan zehaztuko da egun baliogabeen egutegia, Nafarroako Gobernuak zehaztu ohi dituen epeak zenbaitzearen ondorioetarako.

Seigarrena. Datu pertsonalak babestea.

Izaera pertsonaleko datuen tratamendua, egoitza elektronikoaren zerbitzuetarako sarbidetik heldu dena, arloko araudi aplikagarriarekin bat eginen da, horien babes egokia bermatzeko.

Zazpigarrena. Ebazpen honen berri emanen zaie Nafarroako Kontuen Ganberako sistema informatikoetako goi mailako teknikariari, idazkari orokorrari, administratzaileari eta gainerako langileei. Halaber, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Kontuen Ganberaren web orrian argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2015eko irailaren 30ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas